



Migrazioei buruzko II. Munduko Foroa: Message in a Bottle?

ACNUR EUSKAL BATZORDEA/GUIDO VANGOIDSENHOVEN

Ekainean egin zen Rivasen, Madrilen, Migrazioei buruzko II. Munduko Foroa. ACNUR Euskal Batzordeak parte hartu zuen topaketan.

Guido Vangoidsenhoven • ACNUR. EUSKAL BATZORDEKO KIDEA

Bertan 80 herrialdetako 3000 lagun bildu ziren eta migrazioen fenomenoak mundu globalizatuan duen potentzialari buruzko gogoeta sakona egiteko balio izan zuen. Migrazio mugimenduekin lotutako erronken gainean eztabaidatu ahal izan zen programak prestatu-

tako ekintzetan. Asiloa, errefuxiatuak, eta harrera eta elkarbizitza politikak.

Foroa eztabaida gune eta ekintza gune izan zen. Antolatzaileek Mugimendu Sozialen Asambleak egiteko probestu zuten aukera eta bertan izan ziren foroan parte hartu zuten erakundeetako ordezkariak. II FSM ko Mugimendu Sozialen Asambleak (ikus www.fsmm2006.org) onartutako ondo-

rioretan migrazioa globalizazioaren barruan ulertu beharreko fenomeno dela azpimarratzen da. “Migrazioa ezin da jorratu mugekin zerikusia duen gai bezala, ezta “atez barruko” kontua bezala ere, munduan ezarritako eredu kapitalista neoliberalarekin lotura zuzena duen prozesu ekonomiko, politiko, kultural eta soziala bait da.”. Dokumentua sinatu zuten guztiak adierazi zuten etorkinen eskubideak mundu mailan babestuko direla bermatzeko babesa ahalbidetuko duen sare haundi bate sortzea premiazkoa dela.

“Zergatik ez dago etorkin gutxiago?”, galdetu zuten Irekiera ekitaldian Saskia Sassen Doktoreak. Hizlari honen arabera, gaur egungo eztabaida paperen ingurukoa da. “Azterketa zabaldu egin behar du, aktore global guztiak barneratu eta haiei entzun. Zein dira prozesu hontan parte hartzen duten aktoreak?”. Migrazioak hegoaldeko herrialdeetan sortuak ez direla gogoratu zuten Sassenek. “Estatu Batuetan adibidez, lekualdatzeak behartzen dituzten erabakiak Pentagonoan hasten dira hartzen”. “Ekintzaile guztiak identifikatu beharra dago, izendatu eta migrazioen politikaren baitan sartu”. Bere iritziz, gobernuak ezin dituzte jendearen leku aldatzeak kontrolatu, ez kontrol ezagatik, koherentziarik ez duten immigrazio politikak indarrean dituztelako baizik.

Foroan emandako hitzaldi askotan Europar Batasunaren migrazio eta asilo politikak izan zen eztabaidarako gai nagusia. “Internamentuko zentruak: atxilotetak eta kanporatzeak” izeneko seminarioan parte hartu zutenen arabera, Europar Batasunaren politikan segurtasunarekiko obsesioa eta migrazio mugimenduak kontrolatu nahia dira ezaugarri nagusiak. Partaide askok legediaren gogortzea salatu zuten, eta baita subkontratazioaren bitartez, Ukraina edota Maroko bezalako mugako herrialdeen eskuetan migrazioaren kontrolaren externalizazioa ere. Dokumentatu gabekoak internatzeko zentruen finantziak ere salatu zuten. Parte hartu zutenen arabera, internamenduko zentru hauetan ez da ez abokaturik ez medikurik sartzen, eta bertako osasun baldintzak Europako edozein gartzeletan baino kaxkarragoak dira.

Seminarioan aurkeztutako proposamen guztiak harrera humanoago baten aldekoak ziren. Prozedura guztian aholkularitza legala bermatu eta ikuskatzaileen partehartzea ziurtatzearen aldekoak. Partaide batek azaldu zuenez “ honela izatekotan administrazioaren lege haustea dena askatasun ezarekin zigortzearen basakeria eragotzi deza-kegu”.

Ihardunaldietan munduko etorkinen egoera aztertzerakoan ezkortasuna izan zen nagusi, baina parte hartu zutenek prozesu hontan parte hartuaz aurrera egiteko borondatea erakutsi zuten, gaur egun paterak kanarrietara iristen diren moduan, egunen batean mezua iritzi publikoari iritsiko zaiola sinestuta. ■



A CNUR EUSKAL BATZORDEA/GUIDO YANGOISENHOVEN

Topaketan parte hartutako izen batzuk: Somaly Mam, Jean Zigler, Carlos Villán Durán eta Gabriela Rodríguez Pizarro.